

ASKE - Alfonso Sastre Kultur Elkarteak
aurkezten du

ZER ERREPUBLIKA?

TopASKEtak 2008.

Gogoeta eta eztabaida jardunaldiak

KOLDO MITXELENA Kulturunea - Donostia

2008ko azaroaren 18a, 19a eta 20a

Asteartea, 2008ko azaroaren 18a - 19.00h

ALFONSO SASTRE, *Idazlea. Antzezlanak, saiakerak, poesia eta narratiba*

ARNALDO OTEGI, *Filosofoa, preso ohia, legebiltzarkide ohia eta Batasunako bozeramaile ohia*

Alfonso Sastre se suicida, Alfonso Sastrerena

Zutoia Alarzia aktorearen eta Alfonso Sastre egilearen irakurketa dramatizatua; idazlea bere buruaren rolean ariko da

Asteazkena, 2008ko azaroaren 19a -19.00h

ALIZIA STÜRTZE, *Idazlea eta Euskal Herrian espezializatutako historialaria*

CARLO FRABETTI, *Idazlea eta matematikaria*

ELVIRA SOUTO, *Coruñaiko Unibertsitateko irakaslea eta EsCULcAko idazkaria*

Emmanuel Kant azken egunak, Alfonso Sastrerena

(Fito Rodríguez-en itzulpena). Alfonso Sastre-ren *Los últimos días de*

Emmanuel Kant antzezlanaren euskarazko bertsioaren aurkezpena

Fito Rodríguez-ek itzuli du eta idatzi dio hitzaurrea, eta *Artezblai* argitaletxeak argitaratu du

Osteguna, 2008ko azaroaren 20a - 19.00h

SANTI DUÑAITURRIA, *Ekonomista, Kanpo Merkataritza aholkularia eta idazlea*

ANA SANTOS, *Medikuntza doktorea eta Portugalgo mugimendu sozial eta politikoetan ibilitako ekintzailea*

ÁNGELES MAESTRO, *Medikuntza doktorea, Ezker Batuko diputatu ohia eta CorrienteRojako gidaria*

Fermin Balentzia errezitaldia. Kutsu errepublikanoa duten abestiak, kantautore nafarraren eskutik

Zer errepublika?

Aldizka, askotan 10 zenbakiaren multiploa izatea beste meritu-rik ez duten zenbait urteurrenekin bat (nahiz eta, ospakizun gogoia handia bada, 5 zenbakiaren multiploek ere balio duten), *Errepublikaren* gaiak, horrelaxe, bakarka eta biribilean esanda, aktualitatera jauzi egiten du, eta zenbait egunetan edo astetan, orrialdeak hartzen ditu prentsa idatzian edo minutuak telebis-tako eztabaidetan edo "zakarkeria tarteak", irрати tertulietan. Une seinalatuenetan, halako erakustaldiekin batera, txukun plastifikatutako liburuki edo faszikulu bildumagarriak ere argitaratzen dituzte, igandeko gehigarriarekin batera. Horrek esan nahi izaten du, egun edo aste horietan, baimena ematen zaigula errepublikanismoaz mintzatzeko eta etiketa horren azpian sar litezkeen balizko espazio politikoak irudikatzeko.

Guk, ASKE Alfonso Sastre Kultur Elkarteko kideok, definizioz eta hautuz errebeldeak garenez eta, ondorioz, data jakin batzuetako *nihil obstat*dun eztabaidak gustuko ez ditugunez, ez dugu urteurrenik ospatzeko ez premiarik, ez asmorik; are guxtiago Espainiako Bigarren Errepublikaren urteurrena, kontuan izan behar baita esperientzia politiko hartan ez zirela, inondik ere, guztiak argiak izan eta, aldiz, itzalak -eta batzuk ondo ilunak- ugari izan zituela. Ez dugu, beraz, halakorik behar, gaiaren inguruko gogoeta eta eztabaida gune bat sortzeko eta joan zen mendeko 30eko hamarkadan Penintsulan izandako esperientziari *errepublika* izena monopolizatzeo eskubidea ukatzeko.

Errepublikazale izateak, hemen, Euskal Herrian, eta orain, XXI. mendean, ez du Espainiar Estatuko historiako garai hura aldarrikatzearen sinonimo zertan izanik. Bigarren Errepublika hura 1939an amaitu zen, behin betiko, 36an kolpea eman zuten militarrek gerra irabazi zutenean. Era berean, ez du esan nahi aurrekoaren antzeko balizko Hirugarren Errepublika bat ezartzearen aldekoa izan behar denik. Zergatik ez pentsatu, aldiz, euskal errepublika batean? Edo zergatik ez imajinatu nolakoa izango litzatekeen edo izan beharko lukeen Euskal Estatu Errepublikar bat?

Dirudienez, testuinguru honetan, Errepublikaz mintzatzeko substantiboak ez zaizkigu aski. Pentsamendua zabaltasunez eta zehatz adierazi nahi badugu, izenondoetara jo beharra daukagu, gogoan ditugun eta pentsatzen ditugun gauzen esentzia ahalik eta zehazkien identifikatzeko eta lortu nahi ditugun eta aldezteko prest gauden eredu politikoak osatzeko.

Hortaz, gaiaren inguruko gogoeta baliotsuak entzunda eta haiez eztabaidatuta, identifikazio horretan aurrera egiteko, aurren, gure TopASKEten XIII. edizioan, honako hauek gonbidatu ditugu: Arnaldo Otegi, legebiltzarkide izana eta Batasunako

